

Innobideak Kudeabide Egitamua

Xedea	Eusko Jaurlaritzak, SPRIK eta EAeko hiru aldundiek kudeatzen duten plan bat da. Kudeaketa hobetzeko proiektuei laguntzea du xedea, proiektuok Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat badatoz eta lehiakortasuna hobetzeko balio badute.
Erakunde onuradunak (3. art.)	Bizkaiko 5 eta 49 langile arteko enpresak, jarduera hauek egiten badituzte: erauzketako, eraldaketako eta ekoizpeneko industria-jarduerak; ekoizpen-prozesuari lotutako zerbitzu teknikoak, eta informazioaren gizartearen eta komunikazioen arloko jarduerak. Baita ere, jarduera Berrikuntza Sustatzeko Plana 2016 arautzen duen azaroaren 10eko 171/2015 Foru Dekretuaren I. erankinean sartu diren EJSN 2009ko sailkapeneko epigrafe batean kokatzen bada Enpresa onuradunek honako baldintza hauek ere bete beharko dituzte: <ul style="list-style-type: none"> • Sozietatearen egoitza eta zerga-egoitza Bizkaian izatea. • Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea. • Sexuaren ziozko bereizkeria dela eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana.
Diruz lagunduko den egitatea (4. art.) eta betearazteko epeak (7. art.)	Kudeaketa Aurreratuko Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenari erantzuten dioten finkatze-proiektuak (2B) diruz lagunduko dira, baldin eta proiektuotan aplikatu eta ezarriko diren metodologiek eta tresnek lehiakorrago izateko aukera ematen badiote enpresari, Kudeaketa Aurreratuko Ereduarekin bat, eta dekretu arautzailean ezarritako puntuazio-irizpideak gainditzen badituzte. 2B proiektuen artean Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Sailak enpresei eskaintzen dien metodologiak ezartzea ere har daiteke, Hasierako Kontrasteari buruzko Txostenarekin bat badatoz. Metodologia horiek hauek dira: Premie, enpresak kudeatzeko sistema; xertatu:adi, enpresen gizarte-erantzukizuna hobetzeko tresna eta bilgune, kudeaketan parte hartzea sustatzeko tresna. Diruz laguntzen diren jarduerak laguntza eskatu ondoren hasi behar dira, baina 2016ko abenduaren 31 baino lehen, eta amaitu, berriz, 2017ko urriaren 1aren aurretik amaitu behar dira.
Diruz lagundu daitezkeen gastuak (5. art.)	Kanpoko aholkularitza-enpresekin kontratatzea hartuko da diruz lagundu daitezkeen gastutzat, baldin eta gastuon xedea kudeaketa hobetzeko aurkeztu den proiektuaren barruko jarduketak egitea bada.
Laguntzen zenbatekoa (6. art.)	Laguntza izango da, hain zuzen ere, proiektuak dituen diruz laguntzeko gastuen % 60, baina gehienez ere 6.000 € emango zaizkio enpresa bakoitzari.
Araudia eta diru-laguntzak emateko araubidea	Oinarri-arauei buruzko 2016ko otsailaren 16ko 24/2016 Foru Dekretua. Diru-laguntzak norgehiagokarik gabeko araubidean emango dira.
Epeak	Eskabide telematikoak aurkezteko epea 2016ko apirilaren 15ean hasi eta irailaren 30eko 13:30ean amaituko da , Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila bulego birtualean (www.bizkaia.eus/sustapena-bulegobirtuala) aurkeztu beharko dira. Horretarako, enpresak sinadura elektronikoa eduki behar du edo, bestela, BizkaiBai zerbitzuan izena emanda egon behar du; azken kasu horretarako, Orueta apezpikua kaleko 6an ditugun bulegoetan eska daiteke txartela. Eskabideari erantsitako dokumentazioa aurkeztea: eskabidearekin batera, bulego birtualean dokumentazioa eransteko dagoen sistema erabiliz.

Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko Saila
Berrikuntza Zerbitzua,
Orueta apezpikua, 6. 48009 Bilbao

Argibideak:
Tf.: 94 406 8008
berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus
www.bizkaia.eus/sustapena



ERAKUNDE LAGUNTZAILEA: BEAZ, S.A.U. Sabino Arana 8, 48013 Bilbao tel. 944 395 622

